

Ezagutu ezazu zure osasun zentroko erizaina

Erizaina profesional tratatua da osasun arazoak detektatzeko eta konpontzeko, baita bizitzan ematen diren aldaketei aurre egiten laguntzeko ere.

Pazientea eta senitartekoak artatzen ditu (kontsultan, etxean edo komunitatean).

Lehen Mailako Arretako gainerako profesionalekin elkarlanean (familia medikua, pediatra, emagina, administrari laguntzailea, zeladorea eta odontologoarekin).

Lehen arretako lan-taldean, zer betebehazun du? Erizainak norbere burua nola zaindu ikasten laguntzen du, ohitura osasungarriak hartzen. Behar izanez gero, pazienteak beste profesionalengana bideratuko du eta horiekin elkarlanean arituko da.



Euskaraz, bai sano!

Ikurrak profesional elebidunak identifikatzen ditu.

Nor artatzen du? Nola eskatu artatzen?

Erizainen lana pazienteei, senitartekoei edo gizataldeei dago zuzenduta, adina gorabehera (haurrak, helduak eta adinduak).

Batzuetan, osasun zentroko beste profesional batek eskatuko du erizainak artatzea; besteetan, aurrez aurreko kontsulta zein telefono bidezkoa, osasun zentrorako deituta edo www.osakidetza.euskadi.net webgunean eskatu daiteke.

Zer lan mota egiten du erizainak? Zertarako?

Osasuna sustatzeko eta prebenitzeko jarduerak:

Osasun-ohiturak hobetzen laguntzen du hainbat arlotan: elikadura, ariketa fisikoa, higieena, loaldia, sexu harremanak, erretzeari uzteko laguntza, etab.

Norbere burua zaintzea sustatzeko jarduerak:

Norbere burua zaintzen ikasten laguntzen du, hainbat egoeratan ahalik eta autonomoen izateko: tenperatura edo arteria-presioa neurtzea, medikamentuak hartzea, etab.

Egoera berrietara egokitzen laguntzeko jarduerak:

Bizitzaren aldaketara egokitzen laguntzen die pazienteei eta senitartekoei: nerabezaroa, gaixotasunen diagnostikoa, lagun maite baten heriotza, etab.

Proba diagnostikoak egin:

Elektrokardiogramak, espiometriak, etab.

Tratamenduak nola erabili azaltzeko jarduerak:

Botikak, sendaketak, txertaketak, etab.

Nola antolatzen da zerbitzua? Non ematen da arreta?

Kontsulta, osasun zentroan – Bisita, etxean:
Adibidez, osasun zentroan artatzen direnak:

Gaixotasun kronikoa duen pazienteari medikazioari buruzko zalantza sortu zaio edo osasun-adierazle bat aldatuta dauka. Zaintzaileari arreta.

Adibidez, etxean artatzen direnak:

Pazienteak ospitaleko senda-agiria jaso du eta etxean erizaintzako zainketak behar ditu.

Gaixotasuna aurreratuta dago, pazienteak aldian-aldian erizaintzako zaintzak behar ditu.

Larrialdiko arreta:

Adibidez, osasun zentroan artatzen direnak:

Zorabioa izan duen pertsona batek medikuaren edo erizainaren arreta behar du.

Adibidez, etxean artatzen direnak:

Pazienteari ustekabean zunda atera zaio.

Hainbat talderi osasunean hezitzea:

Adibidez, osasun zentroetako jarduerak:

Diabetesa edo arnas-bideetako bezalako gaixotasunak dauzkatenak bere burua zaintzen trebatzeko saioak.

Komunitatearekin elkarlanean:

Erizaina hezkuntza edo giza arloko profesionalekin elkarlanean aritzen da, gizataldeen beharrezkoak eta ekarpenak aintzat hartuta.

Adibidez:

Eskolak: lehen sorospenetan trebatzeko tailerrak.

Auzotarren elkarteak: botiken erabilera arrazoizkoa, etxeko botikina nola osatu, etab.